

Erf.: Olalde deskatalogatzeko HAPOaren aldaketa hasikeraz onartzea.
Tx. zk.: 2021/123

Karmele Muñoa Arrigain andreak, Bermeoko Udaleko Idazkaritza Saileko Administrazio Orokorreko teknikariak, idazkari akzidental funtzinoetan, jarraian zehazten dan gaiari buruz egiten dot honako

TXOSTENA

Gaia: Almike kalea 2an kokatuta dagoen Olalde etxea deskatalogatzeko, HAPOaren katalogoaren aldaketa.

Espediente tramitatzaila: Urigintza saila

Espediente zenbakia: IDA_ERA_0189 (2019)

Txostenaren oinarria: Toki Erakundeen Izaera Nazionaleko Gaikuntzadun Funtzionarioen Araubide Juridikoa onartzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 3.3.d.1 artikulua

Aurrekariak

Lehenengoa.- 2021eko azaroaren 2eko Urigintza Saileko Administrazio Orokorreko Teknikariaren erabaki proposamenaren arabera Almike kalea 2an kokatuta dagoen Olalde etxea deskatalogatzeko, HAPOaren katalogoa aldatzeko beharrezana dago.

Bigarrena.- 2021eko azaroaren 8tik 23ra arte kontsulta publikoa egin zen Bermeoko udaleko webgunean, konpondu nahi ziren arazoak, egokitasuna, helburua eta beste aukera erregulatzialeak azalduz.

Hirugarrena.- 2021eko azaroaren 2eko Urigintza Saileko Administrazio Orokorreko Teknikariak egindako proposamenaren arabera kontsulta publikoan ez zen ekarpenik jaso.

Laugarrena.- 2021eko azaroaren 2eko Urigintza Saileko Administrazio Orokorreko Teknikariak egindako erabaki proposamenean Almike kalea 2an kokatuta dagoen Olalde etxea deskatalogatzeko, HAPOaren katalogoa aldatzeko proposamena egin du.

Oinarri juridikoak



Agiri hau benetako dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E5000864160018Q1E5H9N6A4

Sinadurea eta data

MIREN KARMELE MUÑOA ARRIGAIN-IDAZKARI AKZIDENTALA - 27/12/2021
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 27/12/2021
12:45:00

EXPEDIENTE ::
2019IDA_ERA_0189

Fecha: 14/10/2019

Lekua: Bermeon

Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

CSV: 07E5000864160018Q1E5H9N6A4



1. Aplikagarria den araudia

- Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legea (99. eta 100. Artikuluak)
- Apirilaren 2ko 7/1985 Legea, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen (4.1.a, 22.2.d, 25, 49, 70.2 artikulua)
- 1955eko ekainaren 17ko Dekretua, Toki erakunde zerbiztuen araudia onartzen duena (5-7 artikulua)
- Apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretua, Toki erakunde lege xedapenen Testu Bateratua onartzen duena. (56 artikulua)
- Urriaren 1eko 39/2015 Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedimendu Erkidearen Legea (128,129, 131, 132 eta 133 artikulua)

2. Azterketa juridikoa**A) Oinarrizko kontzeptuak**

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeak honakoa dio:

100. artikulua: "Katalogoak izapidetu eta onartzea.

- 1.- Katalogoak onartzeko edo aldatzeko, toki-erregimenari buruzko araudian udal-ordenantzetarako ezartzen den prozedura erabiliko da, salbu eta plan orokorrek batera izapidetu eta onartzen badira. Jendaurrean jartzeko epearen barruan, irizpena eskatuko zaie foru-aldundian eta Eusko Jaurlaritzan kultura-ondarearen alorreko eskumena duten sailei.
- 2.- Ondasun katalogatuen babeserako neurriak jasotzen dituzten planei dagokienez, onartzen eta indarrean jartzen direnean, eguneratu egin beharko da katalogoa".

99. artikulua: "Hirigintza eta eraikuntzako udalordenantzak izapidetu eta onartzea.

Hirigintza eta eraikuntzako udal-ordenantzak edo plan orokorreko dokumentazioan dauden ordenantzen aldaketak udalak egingo ditu, eta toki-erregimenari buruzko araudian udal-ordenantzetarako ezartzen den prozeduraren arabera izapidetu eta onartuko dira. Plan orokorreko gainerako dokumentazioarekin batera ere izapidetu eta onartu ahal izango dira, eta, kasu horretan, hortik aurrera toki-araubideari buruzko legeriako prozedurari atxiki daudela iritziko zaio".

Hori horrela, katalogoa aldatzeko, udal ordenantzak onartu eta aldatzeko jarraitzen den prozedura bera jarraitu beharko da.

Eta ordenantzen moduan, aldaketa onartzeko, nahitaez, 39/2015 Legearen 129. artikuluan ezartzen diren printzipioak errespetatu behar dira espediente guztian zehar, hau da, beharrez, efikazia, proportzionaltasuna, segurtasun juridikoa, gardentasuna eta efizientzia printzipioak.



Printzipio horien errespetatzea, 2021eko azaroaren 25ean Urigintza Saileko Administrazio Orokorreko Teknikariak egindako txostenean justifikatzen da.

Kuantifikatu eta balioetsi behar dira katalogoaren aldaketak eragin eta erreperkusioak, baldin eta gastu eta sarrerak suposatzen baditu, bai gaur egun, bai etorkizunean. Hori guztia aurrekontuaren egonkortasuna eta finantza iraunkortasunaren printzipioak betetzeko.

Bestalde, katalogoaren aldaketa bideratzeko, Eusko Jaurlaritzako eta Bizkaiko Foru Aldundiko zegoen sailetara txosten eskariak egin ziren eta, bai 2021eko maiatzaren 15ean Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Kultura Ondarearen Zuzendaritzako Euskal Kultura Ondarearen EAEko Zentroaren txostenean, bai 2021eko irailaren 30ean Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirola Kultura Ondarearen Zerbitzuaren txostenean jasotakoaren arabera, ez dago eragozpenik Olalde eraikina udal katalogotik kentzeko.

B) Jarraitu beharreko prozedura

39/2015 Legearen 132 eta 133. artikulua, 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren 56. artikulua eta 7/1985 Legearen 49 eta 70. artikulua kontuan hartuta prozedura hurrengo izan behar da:

a) Katalogoaren aldaketa urteko plangintzan aurreikusita egon behar da (39/2015 legearen 132art).

Ez dago plangintzan aurreikusita.

b) Administrazio Orokorreko Teknikariak justifikatuko du HAPOaren katalogoa aldatzeko beharrezana eta erregulazio oneko printzipioak errespetatu direla.

Justifikatu du.

c) Hala dagokionean, HAPOaren katalogoa aldatzeko proiektua edo aurreproiektua prestatu baino lehen, kontsulta publiko bat bideratuko da Bermeoko Udalaren webgunearen bitartez, eta jasoko da zer iritzi duten etorkizuneko arauak uki ditzakeen subjektuek eta antolakunderik ordezkagarriek puntu hauei buruz:



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E5000864160018Q1E5H9N6A4

Sinadurea eta data

MIREN KARMELE MUÑOZA ARRIGAIN-IDAZKARI AKZIDENTALA - 27/12/2021
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 27/12/2021
12:45:00

EXPEDIENTE ::
2019IDA_ERA_0189
Data: 14/10/2019
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

CSV: 07E5000864160018Q1E5H9N6A4



- ◆ Ekimenaren bitartez konpondu nahi diren arazoak.
- ◆ Arau hori onestea beharrezko eta egoki den
- ◆ Arauaren helburuak.
- ◆ Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzailerik eta ez-erregulatzailerik.

Izapide hori prozeduran burutu izan da.

d) Urigintza saileko Administrazio Orokorreko Teknikariak Bermeoko HAPOaren katalogoaren aldaketa onartzeko erabaki proposamena egingo du.

Erabaki proposamena egin da eta edukiari dagokionez zuzena da.

e) Txosten ekonomikoa egin beharko da kuantifikatzeko eta balioesteko HAPOaren katalogoaren aldaketaren eragin eta erreperkusioak, baldin eta gastu eta sarrerak suposatzen baditu, bai gaur egun, bai etorkizunean. Hori gutzia aurrekontuaren egonkortasuna eta finantza iraunkortasunaren printzipioak betetzeko.

Ez da egin.

f) Idazkari nagusiak txostena egin beharko du.

Behin idazkariaren aldeko txostena izanda hurrengo pausuak eman beharko dira.

g) Informazio batzordeak erabaki proposamenaren irizpena eman beharko du.

h) Osoko bilkuraren ordenantza hasieraz aldatzea onartuko du, gehiengo soilez, 7/1985 Legearen 22.2.d eta 47. artikuluekin bat etorriz.

i) Informazio publikoa eta entzunaldia gauzatuko dira, interesdunek 30 eguneko epean erreklamazio edo iradokizunak aurkezteko. Hasierako onarpena webgunean, ediktuen taulan eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira.

j) Hala dagokionean, HAPOaren katalogoaren aldaketak pertsonen eskubide eta interes legitimoen eragiten dienean, Udalak webgunean argitaratuko du testua, ukitutako herritarrei entzunaldia emateko eta beste pertsona eta entitate batzuek egin ditzaketen ekarpen gehigarriak jasotzeko. Era berean, zuzenean eska dakieke iritzia aldaketaren eraginez beren eskubide edo interes legitimoak ukitzen zaizkien pertsonak biltzen edo ordezkatzeko dituzten eta beren helburuak arauaren xedearrekin zerikusi zuzena duten antolakunde edo elkarte legez aitortuei.



Legeak ez diosku entzunaldi hori noiz burutu behar den, baina praktikan egoki ikusten da entzunaldi hori informazio publikoaren fasearekin batera egitea, proportzionaltasuna, efikazia eta efizientzia handiagoa bermatzeko, eta, beti ere, herritarren eta elkarten eskubideak erabat errespetatuta.

k) Osoko Bilkurak aurkeztutako erreklamazio eta iradokizunak ebatzea eta behin betikoz ordenantza onartzea.

Hasierako onarpenean ezarri daiteke erreklamaziorik izan ezean HAPOaren katalogoaren aldaketa automatikoki behin betikoz onartuta egongo dela baina horretarako arduradunaren txostenean oinarritutako idazkariaren ziurtagiria beharko da alegaziorik egon ez direla egiaztatuz.

l) Erabakia eta aldaketen testua argitaratu beharko da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, Bermeoko Udaleko gardentasun atalean eta ediktuen taulan eta indarrean sartuko da BAOn argitaratu eta 15 egun igarota, 7/1985 Legearen 65.2 artikulua araber.

Ondorioak

Espedientea aztertu ondoren, HAPOaren katalogoa aldatzeko proposamenari **aldeko txosten baldintzatua** egiten zaio. Baldintzak:

- Erabagia hartu orduko HAPOaren katalogoaren aldaketa Araudi Plangintzan jasota egon beharko da.

- Txosten ekonomikoa egin beharko da kuantifikatzeko eta balioesteko HAPOaren katalogoaren aldaketaren eragin eta erreperkusioak, baldin eta gastu eta sarrerak suposatzen baditu, bai gaur egun, bai etorkizunean. Hori guztia aurrekontuaren egonkortasuna eta finantza iraunkortasunaren printzipioak betetzeko.

Informatzen duguna, legean oinarritutako beste edozein txostenen kalterik gabe.

Bermeon, 2021eko abenduaren 27an

Karmele Muñoa Arrigain
Idazkaritzako AOT



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E5000864160018Q1E5H9N6A4

Sinadurea eta data

MIREN KARMELE MUÑOA ARRIGAIN-IDAZKARI AKZIDENTALA - 27/12/2021
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 27/12/2021
12:45:00

EXPEDIENTE ::
2019IDA_ERA_0189
Data: 14/10/2019
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

CSV: 07E5000864160018Q1E5H9N6A4

